

Laudion, 2025eko otsailaren 7an

Laudioko Segurtasun arduradunak kargua utzi du bere ibilbide profesionalean promozio aukera berriak jorratzeko

Jon Agirrebengoa bere Bilboko udaltzain lanpostura itzuliko da berton ireki diren promozio aukerak baliatzeko.

Azaroaren 11z geroztik Laudioko Segurtasun Arduran aritu den Jon Agirrebengoa Barturenak kargua utzi berri du otsailaren 6an bere ibilbide profesionalean sortutako hautabide berriak jorratzeko aukera baliatzeko. Izan ere, Laudion Segurtasun arduradun jarduteko Bilboko udaltzaingoan hitzartutako eszedentzia eten, eta bertara itzuliko da agertu berri diren lan baldintzak baliatuta, bere ibilbide profesionalean aurrera egiteko.

3 hilabeteko ibilbidea jorratu du Agirrebengoak Laudioko Udaltzaingoaren gidaritza eredua aztertzen. Denbora tarte horretan hasierako diagnostikoa egiteari heldu dio giza baliabide zein azpiegituren aldetik Udaltzaingoan jorratu beharreko lan ildoak zehazte aldera.

"Ezustean harrapatu gaituen erabakia izan da, eta atsekabez egin beharko diogu aurre. Lan bikaina eskaini digu denbora tarte honetan eta aurrera begira ditugun eginbeharrei erantzuteko oso bide-orri baliagarria zirriboratu digu", azaldu du

Ainize Gastaka alkateak. Aurrera begirakoei dagokienez, Gobernu Taldea ezustean gertatutako egoera bideratzeko aukerak aztertzen ari da, *"Jon Agirrebengoa lanpostura sartu aurretik geunden egoerara itzuli gara tarte batez. Udaltzaingo talde egituratu eta egonkor bat osatzea da gure lehentasuna, beti ere Laudiorako gertuko polizia eredu bat oinarri duela"* gehitu du alkateak.